


Basarri



Bixente Barandiaran

Errenteria nator
betiko moduan
esan naute Basarri
artzeko goguan
urte asko pasa ditut
beraren onduan
aztu ezin dan pena
daukagu munduan.

Berarekin ibili giñan
ogei bat urtean
gozatu aldi ederrak
emanez tartean
memoria ederra
zeukan artean
gauza txarrak datoz
persona zartzean.

Utsune aundia dago
mundutikan junik
ez da errez bilatzen
zuzenduko ditunik
edo arek bezela gu
aseko gaitunik
obeagorik beintzat
ez det espero nik.

Euskal Errian zituan
gauz asko jasoak
bertsotara deituta
igual egun osoak
poztuko zituen denan
gazteak eta gurasoak
balio aundia zuten
Basarriren pausoak.

Egunak badijuaz baiña
etzaigu au astutzen
geroz eta geiago ari da
mundua beztutzen
gaur asko ez dira orrekin
batere burua estutzen
uste gabeen ai dira
ontzi aundiak ustutzen.

Bi aldiz izan nitzan
Errezilko Granadan
ze leku dagon an esaten
pentsa ze lana dan
bere sorlekua ikustera
nola askotan juana dan
eskerrak azken portu
askoz ohea dan.
Naiz leku txarrean sartu
gizon onak gero azaldu

ori pentsatzen jarrita
orrek meritua ez al du
bere denboran deia ugari
orregatik izan du
ai bere argitasuna
ez bazanba itzaldu.

Berakin ibili geranok eta
beste lagunak berdin
erregu egin deiogu Jaunari
beste munduan ondo izan ote din
al zuan arte gure gaitan
saiatu zan alegin
orregatik naiago gendun
ondotik ez badu alde egin.

Nere irakurle maiteak
guztiek jakin bezate
guk bezelaxe besteak ere
ari zorra daukate
bai bertsolari eta beste lanak
nola zituan bete
urte batzuek pasako dira
olako bat ikusi arte.

Basarri ere ezagutu genduan
sasoi ederrarekin
ordu asko baiño lenago
bideak pasatzen bazekin
berdin zitzaien ibiltzea
bakarrik edo launakin
lagun ona zan ura
ibiltzeko danakin.

Geroz eta gehiago ari da
au jartzen penagarri
errespetorik ez diogu
artzen gaur alkarri
bide ontatik ezin pakerik
iñola ere ekarri
zer esango ote luke gaur
bizi balitza gure Basarri.

Itz egingo luke bizi balik
emen gaur gurekin
esango lituzke bereak
naiz suabe ekin
zer atsegin gendukean
gaur ere berarekin
Txirritaren bertsoak letu
nituan arrituta arekin.
Ala zion gaur edo biar ilda
sartzen banaute lurpean
nere aitormenak izango dira
larogei bat urtean

gazte denbora pasatu zula
ain osasun puertean
bestek bezela bajatu zala
urtetan gora jutean.

Berak zuen laguntasuna
iñola ezin zaigu aztu
bati laguntzen bazion
bera egiten zan poztu
arek zuen borondatea
edozeñek eztu
jenio txarrean etzan jarriko
ibili arren estu.

Bertso batean ezin kontatu
berak zuen balioa
bear zanean alaia oso
urrengoan berdin serioa
bromarako zegoenean
kontulari jariora
ai artuko bagenduke
guk aren lezioa.

Emen jardun gera gu
Basarrin kontuak esaten
nolakua izan zan bera
jendeak jakin dezaten
beraren bidea artuko bagendu
zer poza litzaken
aldian gaude lagun maiteak
ez det jardun nai geio luzatzen.



Bixente Barandiarán